



TANTA EKIMENA MARTXAN

IKASTOLAKO FAMILIA BAKOITZAK 2 TANTA TXARTEL JASOKO DITU



2020 urtean ikastolen jaiek **TANTA** egitasmoa jarri zuten abian jai bakoitzaren finantzaziorako ordura arte bideratzen ziren zozketa ezberdinak ekimen bakarrean bateratzeko helburuarekin. Horretarako Ikastolen Elkartearen ardurapean garatzen da ikastola guztion egitasmo hau.

Ikastolok Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpena bilakatu nahi dugu **TANTA**, herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde ekarpena eginez egikariturako dena.

Urtero, urte horretako jaien ikastola anto-la-tzaileek dute elkartasun txartel hauek banatzeko ardura nagusia, baina ikastola guztiek ere parte hartuko dute ekimenean. Guztiak arituko gara herritarren elkartasuna tantaz-tanta biltzen, auzolanean.

60.000 EUROKO SARIA

TANTA ekimenean txartel batzuk jarriko dira herritarren esku. Herritarrek bost euroko ekarpena egingo diote Euskal Herriko ikastolen proiektuari, **TANTA** txartel bakoitzeko.

Bildutako elkartasunaren zati bat herritarrei itzultzeko, 60.000 euroko sariaren zozketa 2023ko ekainaren 24an egingo da notario aurrean.

FAMILIA BAKOITZAK 2 TANTA HARTUKO DITU

Gure Ikastolaren kasuan, familia bakoitzak **2 TANTA** txartel, 10 euro, hartzeko arduraz izango du. Hau da, familia guztiek jaso beharko dituzte egokitu zaizkien **2 TANTA** txartelak eta martxoa erdialdean errezibo bidez kobrantza burutuko da.

MARTXOAREN 6TIK AURRERA ESKURAGARRI

Martxoaren 6an, astelehena, banaketa abiatuko dugu Ikastolako idazkaritzan.

Familiak egokitu zaizkien **2 TANTA** txartelak aparte, nahi beste eska ditzakete banatzeko eta Ikastolako langileei ere, familien neurri berdinean laguntzeko proposamena luzatuko zaie, **2 TANTA** txartel banatzekoa. Familiako seme-alabek edo beste norbaitek beraien izenean txartelak jasotzeko, baimen idatzia aurkeztu beharko da.



Motxotekale, 16
01400 Laudio
Tel. 94 672 67 37
audio@ikastola.eus
www.audioikastola.eus

FAMILIA:

TANTA TXARTELAK HARTZEKO BAIMENA

Baimena ematen diot _____ri
gure izenean Laudio Ikastolan TANTA txartelak jasotzeko.

_____k izenpetuta